

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Barrundiako Udalaren apirilaren 16ko 156/2020, ebazpenaren laburpena, musika ikasketen beken deialdia. 2019/2020 ikasturtea

BDNS (Identif.): 503674

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira honako musika-ikasketak egiten dituzten adingabe guztiak, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude: 1. mailako irakasgaiak, musika-hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu-taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakaskuntza indartua edozein "Udal Musika Eskolatan".

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

2019/2020 ikasturtean musika ikasketak burutzearren dagozkien zenbatekoei zati batean finantzatzea.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 27an egindako batzarrean, musika beka emateko araupe-tuko duten oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 5.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 320.480.001.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2020ko urriaren 31ra arte izango da.

Ozaeta, 2020ko apirilaren 27a

Alkate-lehendakaria
IGOR MEDINA ISASA